

KANTEN IRAULTZA COPERNICOAZ

Kantek bere galdera famatuari ematen zion erantzunakin pentsatu zuen Copernicok astronomian bultzatu zuen iraultza-
ren parekoa zela berak egiten zuena filosofian. Eta ez da gal-
dera makala Kantek egin zuena: posibleak al dira juizio sinte-
tikoak a priori? Nik esango nuke galdera gramatikala dela filo-
safia naturalari begira, eta orduan erantzuna ezezkoa izan
behar da derrigorrean, ez dira posible; posible izan daitezen
subjektuak a priori ezagutu behar ditu gauzak eta gu ez gara
halako subjektuak, eta fisikaren legeak eta matematika ere a
posteriori egindako ikerketen ondorioak dira. Eta horrekin fi-
losafia naturalak materialismo berezi batera ekartzen gaitu,
zeren teorizatzen ahal baita halako arrazoi garbia, esistitzen ez
dena teorian izan ezik, eta da halako arrazoi garbia nola faro
bat denok erakartzen gaituena, ezagutza unibertuala, baina fa-
rotxo horrek kosmos materiala bere osotasunean ezagutzea
dakar, eta hori, filosofia naturalean, ezezkoa da.

Nik beste iraultza bat proposatzen diot jarraitu nahi naue-
nari. Lehenbizi egin ditzala san Ignazioren ariketa espiritualak,
eta bertan, ebanjelioetako pasarteetan ikasiko du zerbait so-
brenaturala dagoela Jesusen inguruan, eta ekintzetan, batez
ere signoetan. Eta pentsatu behar du Moisesen legea betetzen
zutela ebanjelariak, hau da, ez duzu gezurrik ezta testimonio
faltsurik emango. Ez dute idazten Goetheren moduan,
deskripzioaren maisua, baina fidagarriak dira, historiadore
laikoak baino fidagarriagoak (azken horiek komenigarri ere

ikusten dute hainbatetan gezurra esatea, jakina den moduan), eta orduan Jesusen figura figura historikoa da, mitologikotik ez duena ezer. Eta filosofia ere altxatu egiten ahal da filosofia naturaletik filosofia sobrenaturalera, naturan bertan, historia materialean, ikasten dugulako badaudela fenomeno sobrenaturalak. Horixe Kantek ez zuen aintzat hartu, baina nik bai.

Arestian erran dut Kantek egiten duen galdera gramatikala dela, errealitate materialari begira dagoena baina batez ere gramatikala, nik galdera bera egiten dut baina signifikado errealari begira batez ere, eta deskubritu egiten dut ezen signo baten definizioa dela juizio sintetiko bat a priori delakoa. Eta orduan filosofia naturalean ezinezkoa den teorizazio sublime hura, arrazoi garbia, bada posible errealia izatea, eta nola ez den kosmos honetan posible beste kosmos bat irudikatu behar dugu, errealagoa oraindik, goragokoa, baina kosmos honetan inbisiblea, insensibla. Kosmos sobrenaturala da hori. Eta kosmos material honetan insensibla denez errez konprenitzen da nola filosofia naturaletik beti amaitzen den materialismo ateoan.

Eta hemen kokatzen dut nik neure iraultza berria, eta dena itzultzen da filosofia kristauari buruz, indartua ateratzen baita ohartze berriekin, hamaika irain, mespretxu eta kalamidade igarero ondoren berriro datorkigu filosofia kristaua filosofiaren burura, aktualizatua jakina, baina burura. Eta horrek ez dakar filosofia naturala ukatzerik, baizik eta filosofia naturala konprenitua da modu perfektuan filosofia sobrenaturalaren baitan.

Roman Garmendia